



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIÁN



piaweb.es

Polo de Innovación Audiovisual
Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea
Audiovisual Innovation Center
Donostia-San Sebastián

1-AURREKARIAK

Donostiako Sustapena, Donostia hiriko eta inguruetako garapen ekonomikoaz arduratzen den uda-erakundea da; tamaina handiko proiektuak burutzen ditu, Gipuzkoako hiriburua berrikuntzaren arloan Europako buruan ezarriz. Hori guztia sektore publikoak bultzatu du, arlo pribatuko bazkiderik eta onenen lankidetzaren estuarekin.

Udalaren helburuetako bat da, betiko sektore ekonomikoak birmoldatu, eta enpresa-ehun aurrerakoi eta berritzaileetan bilakatzea; horretarako, Donostiako Sustapenak ikus-entzunezkoen industriaren aldeko erronka egin du, sormenaren bultzatzaile eta aberastasun nahiz enplegua sortzen duen heinean.

2003an sortu zen Film Commission bulegoa eta, orduetik, Donostiako Sustapenak ikus-entzunezkoen esparruan lan egin du, arlo horren beharrianak ezagutu eta, elkarlanean, merkatuarena urrean kalitatezkoa bezain lehiakorra izango den ikus-entzunezkoen industria sendotzeko. Lankidetzaren estu horri esker, ezaugarri anitzetako ekimen ugari sortu dira, hala nola, prestakuntza eta aholkularitza teknologikorako neurriak, enpresak sortzeko laguntzak, edota jarduerari ekin ahal izateko alokairupeko lokalen eskaintza.

Kooperazio eta sareko lanaren testuinguru horretan sortu da Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea, ikus-entzunezko industriarentzat erreferentzia eta abangoardiako eremua izango dena. Gune horrek, 2008 urte honetan, behin betiko sustapena lortu du, IBG eraikina egiteko obren inguruko onarpenera eta adjudikazioa lortu baitu.



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIÁN



piaweb.es

Polo de Innovación Audiovisual
Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea
Audiovisual Innovation Center
Donostia-San Sebastián

2-ZER DA IBG?

Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea, habitat bat bezala eratu da, abangoardia eta berrikuntzarako enpresa-eremu bezala, alegia. Bertan sortzen dira XXI. Mendean ikus-entzunezkoen alorreko enpresak lehiakorrek izateko beharrezkoak dituzten baldintzak.

Udal esparrutik, IBGk urte asko daramatza enpresak merkatu berrietara gerturatzeko ekimenak burutzen. Modu horretara, lehiakorragoak izateaz gain, formatu berritzaileagoak erabiltzen dituzte, kooperazioan eta sareko lanean oinarrituta, betiere.

IBGren helburua da, sinergiak sortzeko erraztasunak ematea, ezagutza sortzea eta, ondorioz, hirian aberastasuna, enplegu kualifikatua eta garapen ekonomikoa sortu eta bultzatzea.

Sektoreko ordezkarien eskutik urte luzez lanean egon ondoren, Donostiako Sustapenak ikus-entzunezkoen alorrean aurrerapauso garrantzitsua eman, eta eraikin berri bat egiteko lehen harria jarri du. Eraikin hori, udalaren lurretan altxatuko da, finantzaketa publikoarekin (Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak finantzatutako proiektua da, Avanza Planaren baitan). Bertan, alokairupeko espazioak eskainiko dira, erabilera erkideko ekipamendurik eta aurreratuenekin, ikus-entzunezko arloan diharduten enpresak finkatu daitezen, lehiakorragoan izan daitezen, eta merkatu zabalagoetan sartzeko aukera izan dezaten.



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIÁN



piaweb.es

Polo de Innovación Audiovisual
Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea
Audiovisual Innovation Center
Donostia-San Sebastián

3-NOLAKOA IZANGO DA ERAIKINA?

- **Kokapena:** Zuatzuko Industrialdean kokatuko da.
- **Alokairu-erregimena:** Bi eraikin altxatuko dira, udalaren titulartasunpeko partzela baten gainean. Bertan, ikus-entzunezkoen sektoreko eta multimedia alorreko hirurogeita hamarren bat enpresa kokatuko dira, beraien negozioak burutzeko espazioa lortu dezaten, alokairupean, eta erabilera komuneko ekipamendu aurreratuekin.
- **Erabilerak:** 19.000 metro koadrotan, honakoak izango dira:
 - a. Ikus-entzunezko sektoreko 60 enpresa ingururentzako beste leku

- b. Sestrapeko aparkalekua
 - c. Udal-artxibo berria
 - d. Haurtzaindegia
 - e. Enpresei zuzenduriko ikus-entzunezko ekipamendua: Bi plato daude, kontrol-gela, aldagela eta dekoratuentzako biltegiarekin; pitching-gela proiektuak ikusteko, zine-areto txiki baten moduan; auditorioa, bideoteka...
 - f. Sarbideetarako txartel bidezko kontrol-sistema zentrala.
- **Arkitektura bioklimatiko:** Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunearen eraikina, nabarmentzekoa da ez bakarrik berrikuntza eta ezagutza biltzen dituen gune bat delako (talentudun enpresak fusionatzen ditu erabilera komuneko ekipamendu teknologikoak eskaintzen ditu, bai eta ikerketarako ikus-entzunezko unitate bat ere), baizik eta Estatuko eraikinen artean abangoardiakoa izango delako, bere arkitektura bioklimatikoari esker: Klimatizazio eraginkorra izateko energia geotermikoaren aplikazio mistoa, argi naturalaren aprobetxamendua, plaka fotovoltaikoen bidez eguzki-energia sortzea, hiri-ingurunearekin integratzea, energia kaptatzea eta CO2a eraldatzea, fatxadetako geruza berezi baten bidez...



piaweb.es

Polo de Innovación Audiovisual
Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea
Audiovisual Innovation Center
Donostia-San Sebastián

4-ZEINTZUK DIRA IKUS-ENTZUNEZKO BERRIKUNTZA GUNEAREN EGITEKOAK?

- Hiriko filmaketak eta dinamizazio-jarduerak kudeatu eta modu aktiboak kaptatzea: Donostiako Hiria Film Commission Saria, 15x15 Festibala...
- Ikus-entzunezko enpresei alokairupeko lokal merkeak eskaintzea, erabilera komuneko gela eta ekipamendu teknologiko aurreratuenarekin.
- I+G+b: Ikerketa unitate bat sortu eta abian jartzea, ikus-entzunezko enpresen zerbitzura, merkatuaren eta zientziaren

egunez eguneko kontaktua erraztuz, eta ikus-entzunezko enpresen berrikuntza sustatuko dituzten jarduerak eskainiz.

- Sareko lana eta nazioartekotzea: Sektoreko beste instituzio eta enprekin harremana, erakunde eta elkarteekin lankidetzahitzarmenak, sektoreko enpresen jardueren nazioarte mailako sustapena...
- Finantzaketa-plan bat diseinatu eta martxan jartzea ikus-entzunezko sektoreko enpresentzat.
- Sektorearentzako prestakuntza-plana eta Prestakuntza Unitatea sortzea.
- Ikus-entzunezkoen lan-poltsa, sektorearen bereizitasunetara egokitutakoa.
- Ikus-entzunezkoen Behatokia, sektorearen bilakaeraren adierazleak dituen.
- Aholkularitza espezializatua: Enpresa arteko lankidetzeta eta fusioak, enpresa-kudeaketa, marketing, merchandising, merkatu berrietara irekitzea, legezko aldeak...



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIAN



piaweb.es

Polo de Innovación Audiovisual
Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea
Audiovisual Innovation Center
Donostia-San Sebastián

5-ZEINTZUK DIRA IBG-REN BEREIZGARRIAK?

Fusioan, lankidetzan eta sareko lanean datza IBGren arrakasta, honakoa lortzen baitu:

- **Ikus-entzunezko eta multimedia sektoreko enpresen pilaketa.**
- **Erabilera komuneko punta-puntako azpiegitura teknologikoak;** horri esker, enpresek ez diete beraiek bakarrik aurre egin beharko ekipamenduen kostu handiari eta amortizazio azkarrari.

- **Merkatuaren eta zientziaren arteko eguneroko kontaktua:** elkarren ondoan eta espazio berean lan egiten dutelako enpresek eta Ikerketa Teknologikoko Unitateek.
- Sareko lana sustatzeko agenda partekatua: Merkatu berrietara jotzeko aholkularitza, proiektuetarako hasierako kapitalaren kudeaketa, formatu digital berritzaile eta aurreratuenetarako prestakuntza...
- Proiektu estrategikoa delako da horren berezia: sinergiak sustatzen ditu, ezagutza sortzen du, eta guztiz erakargarria da etorkizuneko sektorea indartzeari begira.



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIAN



piaweb.es

Polo de Innovación Audiovisual
Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea
Audiovisual Innovation Center
Donostia-San Sebastián

6-NOLA FINANTZATZEN DA ERAIKINA, ETA NOIZKO EGONGO DA PREST?

IBG eraikin berria udalaren titulartasunpeko lurretan egingo da, eta proiektuaren kostua (20 milioi euro) Donostiako Udalak ordainduko du: 15 milioi euroko kreditua jaso du %0an, bai eta 632.000 euroko diru-laguntza ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Avanza Planaren baitan.



DONOSTIAKO
SUSTAPENA
FOMENTO DE
SAN SEBASTIAN



piaweb.es

Polo de Innovación Audiovisual
Ikus-entzunezko Berrikuntza Gunea
Audiovisual Innovation Center
Donostia-San Sebastián

Eraikitze-lanak hasita daude, eta jarri da dagoeneko lehenengo harria (2008/09/23). Obrak burutu ahala, bertan kokatuko diren tokiko, estatuko nahiz nazioarteko enpresekin hitzarmen eta kontratuak sinatuko dira.

2010. urtearen erdialdera bukatuko dira obrak, eta bi urtetan IBG martxa onean egotea espero da.

